



EHU/UPVren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura, 2018ko urriaren 10ekoa

Osagarrien deialdia A eta B tramuetarako (gai zerrendaren 2. puntua)

Uztailean gaitzetsi genituen zenbait gauza errepikatuko dugu, orain egoera are larriagoa dela salatuz batera. Osagarriak arautzen duen Dekretuak (209/2006) bere 7. artikuluan dio osagarrien deialdiak urtero egin behar direla.

Deialdiekin egon den orain arteko anabasa nahikoa ez balitz, uztailearen 25eko Osoko Bilkuran Gizarte Kontseilu honek onartu zuen 2017ko deialdiari amaiera ematea A, B eta Unibertsitate Eskolako irakasle ez doktoreen tramuen esleipenari dagokionean. Orain, 2017ko urteari dagokion deialdi berria onartzeko beharra dugu legea bete ahal izateko.

Uztaileko erabakia hartzeko erabiltzen zen aitzakia izan zen merituak ebaluatzeko indarrean zegoen protokoloa bertan behera geratu zela, epai irmo baten ondorioz. Unibasq-ek jakinarazi zuen epai hori irmoa bilakatu zela aurtengo urtarrilean, baina abuztuaren 21a arte ez zen protokolo berria argitaratu. Uztailean Unibasq-en utzikeria salatu genuen, eta orain utzikeria hori uste genuena baino larriagoa izan dela konturatzen gara. Errepikatzen dugu berriro ere: hau ez da irakasleen ardura, baina irakasleak izango dira kaltetuak.

Urtarriletik abuztura doan aipatu atzerapenarekin, eta gaur onartzeko eskatzen zaigun deialdiak izango duen argitaratze-data kontuan hartuz, ezinezkoa izango da irakasleak garaiz ebaluatzea, eta ondorioz irakasleek 2020 arte ez dute 2017ko deialdiko osagarriak kobratuko. Salagarria benetan.

Gainera, protokolo berrian autoebaluazioa lehen bezain zaila da, hain zuzen, protokolo zaharra bertan behera uzteko epaileak erabili zuen argudioa. Ez da ezer konpondu, beraz.

Osagarrien deialdiak urtero egin behar dira, garaiz, eta modu argian. Urtean bertan esleitu behar dira hurrengo urtarriletik aurrera ebaluazio positiboak dagozkien tramuek kobratu ahal izateko. Eraman den bidearen aurka egon gara behin eta berriro, eta une hauetan, deialdia ahalik eta azkarren egitea ez oztopatzeagatik, abstentziora joko dugu. Aldi berean, errepikatu behar dugu ere, ardura daukaten aldeek borondatea izatekotan, posiblea zela 2017ko deialdiarekin batera 2018ko deialdia ere egitea, irakasleari gehiago ez kaltetzeko. Baina argi geratzen da, beste behin ere, batzuek dauzkaten irizpide ekonomikoak irakasleen eskubideen gainetik daudela.